



Kostuen Egiturak

SporTracker-en kostuen egitura funtsezkoa da negozioaren iraunkortasuna bermatzeko eta diru-fluxuak modu egokian kontrolatzeko. Lehenik eta behin, kostu finkoak daude, hileroko edo urtero berdin mantentzen diren gastuak direnak; horien artean sartzen dira zerbitzarien eta cloud azpiegituren gastuak (hilean gutxi gorabehera 300–500 euro), softwarearen garapena eta mantentzea (hasieran urtean 8.000–12.000 euro inguruko inbertsioa), langileen soldatak (garatzaileak, nutrizionistak eta entrenatzaileak barne, hilean 2.000–3.000 euro pertsonako) eta bulego edo lan-espazioaren gastuak (hilean 400–600 euro). Bestetik, kostu aldakorak daude, erabiltzaile kopuruaren arabera aldatzen direnak; horien artean publizitate-kanpainak eta marketina (hilean 200–800 euro), harpidetza sustapenak, datu-trafikoaren erabilera eta ordainketa-plataformen komisioak (diru-sarreraren %2–5 inguruan).

Gainera, eskala-ekonomiak kontuan hartzen dira, erabiltzaile kopurua handitu ahala kostu unitarioak murrizteko aukera ematen baitute, adibidez software-kodearen optimizazioaren eta datu-basearen erabilera eraginkorraren bidez. Horrez gain, hedadura edo zabalkunde ekonomikoek baliabide berdinak hainbat zerbitzu edo funtzionalitate eskaintzeko aukera ematen dute, hala nola entrenamendu-plan eta dieta desberdinak plataforma berean integratuz, kostu gehigarriak handitu gabe. Kostuen egitura ondo planifikatzeak aplikazioaren prezioa lehiakorra mantentzea ahalbidetzen du, erabiltzaileari balio handia eskainiz. Gastuen aurreikuspena eta kontrola ezinbestekoak dira SporTracker-en arrakasta eta merkatuan lehiakortasuna

bermatzeko. Azken finean, kostu finkeen, aldakorren eta egitura malgu baten arteko oreka egokiak etorkizuneko hazkundera, berrikuntza eta aplikazioaren jasangarritasuna ahalbidetzen ditu.